BizkaiSare
Gizartea ehuntzen / Tejiendo la sociedad

Zer da BizkaiSare?

Irabazi asmorik gabeko erakunde sozialen sarea da. Erakundeok adituak dira garapen eta ekintza komunitarioan, bai eta nahi ez den bakardadea saihesten ere.

Nor da BizkaiSareren parte?

Sarea, gehienbat, erakunde sozialek (elkarteak, fundazioak zein gizarte-ekimeneko kooperatibak) osatzen dute. Erakundeok gai hauek jorratzen dituzte: ekintza zein garapen komunitarioa, gizarte-kohesioa eta integrazioaren sustapena. Horrez gain, nahi ez den bakardadearen prebentziorako jarduerak ere sustatzen dituzte.

BizkaiSareko kideek ikuspegi bera partekatzen dute, gaitasunak bateratzen dituzte eta, bereziki, erantzukizun kolektibo berari erantzuten diote: BizkaiSare 2030 Estrategiaren jarraipena egitea eta, dagokion arlo zein lurraldetik, hura bete dadin laguntzea.

1. **Ikuspegi bera partekatzea**
   BizkaiSare 2030 Estrategiaren printzipioak eta helburuak ulertzea eta bere egitea; hain zuzen, Bizkaia lurralde kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta komunitarioagoa izan dadin.
2. **Norbanakoak eta komunitateak erdigunean jartzea**
   Gizarte-loturak, partaidetza, elkartasuna eta komunitateko kide izatearen sentimendua indartzen dituzten jarduketak sustatzea.
3. **Lurraldearen errealitatea ezagutzea**
   Informazioa, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzea, Bizkaiak dituen beharrak, aukerak eta gaitasunak hobeto ulertzeko.
4. **Mintzatzea eta entzutea**
   Instituzioen, entitateen, profesionalen, herritarren eta beste eragile batzuen arteko komunikaziorako espazioak sortzea;

kontuan izanda entzute aktiboa bermatu eta askotariko ikuspegiak aintzatetsi behar direla.

5. **Saretzea eta elkartzea**
   Norbanakoen, erakundeen, baliabideen zein sareen arteko elkarlana eta topaketak ahalbidetzea; betiere, bikoiztasunak saihestuz eta lankidetza-aukera berriak sortuz.
6. **Baliabideak eta ezagutza partekatzea**
   Sarearen esku jartzea estrategiaren garapenari ekarpena egin diezaioketen esperientziak, metodologiak, erremintak, baliabideak eta jardunbide egokiak.
7. **Hausnarketatik akziora jauzi egitea**
   BizkaiSare 2030 estrategiaren helburuak betetzen lagunduko duten ekimenen diseinuan, garapenean eta zabalkundean parte hartzea; komunitatearengan eragina izan dezaketen ekimenetan, batez ere.
8. **BizkaiSare 2030 Estrategiari jarraipena egitea**
   Helburuen eta jarduketa-ildoen aldizkako jarraipenean parte hartzea, estrategiaren aurrerapenei, zailtasunei, emaitzei eta ikaskuntzei buruzko informazioa eskainiz.
9. **Hobekuntzak egiteko ebaluatzea**
   Estrategiaren ebaluazio- eta berrikuspen-prozesuetan parte hartzea. Hau da, identifikatzea zerk funtzionatzen duen, zer hobetu behar den eta zeintzuk diren gehitu beharreko beharrizan edo erronkak.
10. **BizkaiSareren etorkizunaren ardura partekatzea**
    Sareko kide izatea konpromiso partekatua dela ulertzea. Bestela esanda, **ezagutzea, mintzatzea, saretzea eta egitea**, BizkaiSare 2030 Estrategiari elkarlanean aurre egiteko.

Gaur egun, hogei entitate dira sareko kide.

Zertarako balio du sare horrek?

Sarearen oinarrizko funtzioetako bat da BizkaiSare 2030 Estrategiaren garapenean aholkulari eta kolaboratzaile aritzea. Azken hori Bizkaiko estrategia komunitarioa da, zeinak gizarte kohesionatu bat eratzeko asmoa duen.

Sarearen helburuen artean hauek daude:

- ❑ **Estrategiaren jarraipena**: urteko planen lehentasunak zehazten eta onartutako planen jarraipena egiten laguntzea.
- ❑ **Lanerako eta elkartrukerako saioetan parte hartzea eta saiook antolatzeko proposamena luzatzea**, hauek lortzeko: esperientziak partekatzea; sinergiak sortzea; ikastaroak eskaintzea, sentsibilizatzea, laguntzea, informazioa ematea eta zalantzak argitzea; legediari buruzko informazioa eskaintzea; gai berritzaileen eta joeren berri ematea, eta jardunbide egokiak aitortzea.
- ❑ **Jardunaldi teknikoen edota urteko tailerren antolakuntzan laguntzea**, helburu hauek lortzeko: prestatzea eta gaitzea; inplikazioen berri ematea; ezartzeko modukoak diren tresnei buruzko informazioa eskaintzea, eta gai berritzaileetan trebatzea zein horiez informatzea.
- ❑ **Elkarlanean aritzeko jarduerak identifikatzea**: ikastaroak, gidak, monografikoak, eta abar.
- ❑ **BizkaiSareko ekintzetan edo proposatzen diren beste ekintza batzuetan parte hartzeko edota horiek dinamizatzeko** aukera egiaztatzea.
- ❑ Proposatzen diren **jarduerak eta komunikazio- zein sentsibilizazio-kanpainak** zabaltzea.

Zer dakar sare horrek?

- ❑ BizkaiSare 2030 **estrategiaren garapenari ekarpena egitea**.
- ❑ Behintzat **urteko saio espezifiko batean** parte hartzea eta, batzorde iraunkorreko kide izatekotan, baita hiru bileratan ere.
- ❑ BizkaiSare 2030 Estrategiaren markoaren barruan antolatzen diren jarduerei buruzko **informazio eta material eguneratuak jasotzea**.
- ❑ **BizkaiSareren webgunean** sareko kide gisa agertzea.

Nola egin bat estrategiarekin?

Bat egin nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan helbide elektroniko honen bitartez: gizartekohesioa@bizkaia.eus. Mezuan adierazi zure ibilbidea, zergatik nahi duzun sarera sartu, BizkaiSarek zer erronka dakarzkizun eta gizarte-kohesioari lotutako zein amets betetzea nahiko zenukeen.

Sarean sartzeko eta bertan jarraitzeko proposamenak batzorde iraunkorrak balioetsiko eta onartuko ditu aldian-aldian.

Edonola ere, sareko kide garen entitateok konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Ekintza komunitarioak sustatuko ditugu, Bizkaia kohesionatzea lortzeko.
- Tokiko garapenean eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko lanetan dihardutenen sentsibilizazioa, hartu-emana, entzutea, lotura eta partaidetza sustatuko ditugu.
- Inklusioa, gertutasuna eta prebentzioa izango dira gure jarduketen ezaugarriak.
- Gure praktikak talde eta errealitate askoren arteko interdependentzia, lotura eta saretzea sustatzera bideratuta egongo dira.
- Gure gain hartuko dugu estrategiari laguntzeko erantzunkidetasuna, ezagutzak, tresnak, esperientziak, hausnarketak eta ikaskuntzak partekatzearen bitartez.
- Gure jarduketen neurketa eta etengabeko ikaskuntza sustatuko ditugu.
- Parte hartuko dugu Bizkaiak gizarte kohesionatua eratzeko abian ipini duen estrategia komunitarioaren (BizkaiSare 2030) jarraipenean eta ebaluaketan.